

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko abenduak 17ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Etxeko hondakinak biltzeko lehiaketa:** Honako gai hauek baliozkotu dira: Arakaldo, Arrankudiaga, Orozko eta Urduñako gainerakoen frakzioaren garraioa, prezioa, egur-bilketa, iragarkia argitaratzeko gastuen kobrantza, fidantza itzultzea, eta bestelakoak. Oraindik Udalek baliozkotu ez dituzten kontuak zehaztu dira.
- **Etxeko landare-olio erabilia biltzeko lehiaketa:** Lizitatzailari eskaintako prezioa egiaztatzeko formalki eskatzea erabaki da.
- **2016ko Kudeaketa Plana:** Diru-sarrerei eta gastuei buruzko zenbait erabaki hartu dira.
- **Eskualdeko atxikimendua Ecoembes Hitzarmenari:** Onartu egin da.
- **Bilketa organikoa ezartzeko 2. kanpaina:** Ontzat eman da euskarri berriak sartzea (gainerakoen edukiontzietan informazio-eranskailua eta whatsapp), proba gisa, bi udalerrri hauetako sendotze kanpainan: Ugao-Miraballes eta Zaratamo (Arkotxa).
- **Lankidetzaren hitzarmena URArekin:** 10 Udal daude sinatzearen alde. Bertaratutako Alkateek dokumentua sinatu dute. Zenbait udal arduradunek urteko programazioak egiteko laguntza eskatu dute, eta eskaera hori URari helarazi zaio.
- **Uralita-amiantoa kentzea:** hondakin arriskutsu horren kudeaketari buruzko informazioa trukatu da.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Urtarrilaren 21an, osteguna, 11:30etatik 14:00etara. Aurreneko ordua, 11:30etatik 12:30etara, Garbiker-ekin saio monografikoa.